

# **Estatu arrazoia indargabetu**

## **Haunarketarako agiria**

ELAren Nazio Batzordea

Bilbo, 2009ko urriak 20

**ELA**  
**EUSKAL SINDIKATUA**

# **Estatu arrazoia indargabetu**

## ELAREN NAZIO BATZORDEA

<b>Transbertsalitatea, estatu-itunaren mozorro erretorikoa.....</b>	<b>3</b>
<b>Espainia uniformea, PSOEk ere egin duen behin betiko aukera.....</b>	<b>4</b>
<b>Lan mundua eta esparru soziala ere uniformatu nahia, Hego Euskal Herrian paktismoaren babesarekin .....</b>	<b>5</b>
<b>Eskubide eta askatasunak, gero eta mugatuago .....</b>	<b>8</b>
<b>Instituzioetako nazionalistek talka ez egitea erabaki dute .....</b>	<b>10</b>
<b>ENAMek apustu politiko hutsa egin behar du .....</b>	<b>11</b>
<b>Maiatzeko greba orokorra, errealitatea azaltzeko beste modu bat .....</b>	<b>12</b>
<b>Mugimendu abertzalearentzako erronka handiak Iparraldean .....</b>	<b>13</b>
<b>Konklusio “garaileak” ateratzea .....</b>	<b>14</b>
<b>Gure apustua .....</b>	<b>15</b>
<b>OHARRAK .....</b>	<b>16</b>

1. ELAko Nazio Batzordeak agiri honekin egoera politiko eta sozialaren inguruko azterketa eguneratzen du<sup>1</sup>. Klase-erakunde sindikal abertzale bati dagokion moduan, autogobernuaren gorabeherak, eta gure herrian osasun demokratikoa eta oinarritzko eskubideak zertan diren aztertzea da bere xedea. Halaber, bere klase-konpromisoa berretsi nahi du gure herriko askatasun eta justizia sozialarekiko.

### **Transbertsalitatea, estatu-itunaren mozorro erretorikoa**

2. XII Kongresu konfederalak<sup>2</sup> ohartarazi zuen ezinezkoa dela, estatuarekiko itun politiko baten baitan, Espainiako Konstituzioak, Estatutuak eta Foruaren Hobekuntzak osatzen duten blokean aldaketak egitea. Euskal abertzaleen arteko bi joera politiko nagusiek hipotesi politiko hau ontzat ematen zuten, ikuspuntu eta eduki desberdinekin bada ere. Ia urtebete igaro delarik, Nazio Batzorde honek uste du auzi honekiko egin zuen diagnostikoa frogatuta geratu dela.

3. Lehenik gogoratu beharra dago trantsizio politiko izendatu zutenaren oinarrian Espainiako bi tradizio politiko handien (frankismoa eta sozialismoa) arteko adostasun bat zegoela “estatu-auzi nagusi” zeritzaien inguruan: autonomia-prozesuak, hizkuntzen inguruko kontuak, nazioarteko politika edota Konstituzioan egin zitezkeen erreformak. Honi estatu-politika edo -itun esaten diogu.

4. Estatu-politika hau –estatuko instituzio eta botere nagusiek partekatua– etengabe saiatu da Hego Euskal Herriarekiko eraman duen unformatze eta demokraziaren kontrako ekinean. PPK eta PSOEk 2000 urte amaieran sinatu zuten Askatasunen aldeko eta terrorismoaren aurkako Ituna –oraindik ere indarrean dena– dugu akordio horren adierazpen idatzietako bat, eta ekintza politikoari bidea erakusten dio gaur ere.

5. Urtetan ikusi izan dugu itun hori “estatu-arrazo” bilakatu dela euskal auziari buruz, eta horrek botere guztien (exekutibo, legegile eta judizial) jardunean salbuespen maila handia eragin duela. Gainera, krisian jarri du autogobernua, baina baita inguruko estatuetan ohiko diren gutxieneko demokratikoak ere, berme juridiko zein politikoak (herritar, talde eta erakundeenak), eta are giza-eskubideak ere.

6. Salbuespen kutsu horren adibide argia izan da, esaterako, EAEko azken hauteskunde autonomikoetan gertatu dena: Gure gizartearen zati bati adierazpide politiko askea galarazita, parlamentuko oreka era artifizialean aldatu da, eta horrek ekarri duen eserleku banaketak posible egin du gobernu berria sozialista eta popularren babesarekin osatu ahal izatea.

7. Hain zuzen, buruzagi sozialista garrantzitsu batek azaldu du operazio honen benetako helburua zein zen: Patxi Lopez lehendakartzara iritsita, dio, “Euskadin eta Espainia guztian itxi da trantsizio demokratikoa”<sup>3</sup>.

8. Beraz, transbertsalitatea baliabide erretoriko eta faltsu bat zela agerian geratu da beste behin ere. Horregatik, Nazio Batzordeak eutsi egiten dio duela urtebeteko gogoetari: “indar estatualistek gutxiengo diren eremuetan bakarrik aipatzen dute zeharkakotasuna, aldaketa politikoari betoa jartzearren. Aitzitik, inoiz ez dute aldarrikatzen printzipio hori gehiengo diren tokietan (Nafarroan edo Estatuko erakundeetan, adibidez)”<sup>4</sup>.

9. Orduan esan genuen ere “Benetako zeharkakotasuna litzateke proiektu bakoitzak, bestekiko lehia garbian, bestearen hautesleak bereganatzeko aukera izatea”<sup>5</sup>. Bada, estatu honek ez du lehiakiderik onartzen; aski izan du areriotzat hartzen duen esparru politikoaren zati handi bat bere hortan desagerraraztea ordezkari instituzionala aldatzeko. Bestalde, sarri gogoratu dugunez, Nafarroan azken gobernu forala osatzerakoan gertatu zenak edota Katalunian ikusitakoak -Estatutua eta beronen aurka Auzitegi Konstituzionalean jarritako helegitea-, begibistan uzten dute benetako transbertsalitate kulturarik ez dagoela.

10. Hori guztia dela-eta, halabeharrez konklusio batera iritsi gara: lehenbailehen jo behar dugu behin betiko egitatetzat esparru konstituzionala aldatzeko aukerarik ez dagoela, ezta egungo Estatutua betetzekoa ere, estatuko bi alderdi politiko handiekin bederen. ELAk uste du errealitate hau onartzeko premian gaudela, gero hortik ondorioak atera eta indar abertzaleon definizio estrategikoa egiteko, burujabetzaren inguruan politika errealista bati ekin ahal diezaiozun.

### **Espainia uniforme, PSOEk ere egin duen behin betiko aukera**

11. Estatu-itunak ahal duen guztia egin du, genioen legez, lehendakari berria jartzeraino. Helburua ezaguna da, espainiar nazioa ez den beste edozein erabakigune eragozte eta euskal prozesu autonomikoa armonizatzea, espainiar nazionalista askoren ustez “eskutatik alde egin baitzien”.

12. Horregatik, ez da harrizkoa EAEko egungo Jaurlaritzak uniformatze asmo horrentzako oztopo diren autogobernuko atal eta erakundeak berrikustea. Aski da PSE-EEK eta PPK sinatutako agiria irakurtzea itun horretan hizkuntza- eta hezkuntza-politikak edota komunikabide publikoek duten pisuaren berri izateko. Ez da kasualitatea hain justu delako “patriotismo konstituzionala” aldarrikatzen dutenek maila sinbolikoan, kulturean, lurraldean edo esparru etnolinguistikoan aldaketak egin nahi izatea.

13. Baina estrategia hori ez da gobernu berriarekin batera sortu. Nazio Batzordearen hausnarketa politikorako azken agiriaz gero, aipatu beharra dago, kasu, Legebiltzarrak 2008an onartu zuen Kontsultaren Legea Konstituzioaren aurkako zela ebatzi zuen epaia.

14. Auzitegi Konstituzionalaren ukoa beste katebegi bat da denbora pasa ahala gero eta argiago agertzen den segidan: euskal esparruan alderdi espainolen aldeko ez diren gehiengoak sortzen direnean (sozial, politiko edo instituzionalak direla ere) estatu-arrazoia

ezartzen da, bere botereen bitartez, eta ez dio bat ere ardura zuzenbidearen edo demokraziaren printzipioak aintzat hartzen dituen edo ez. Halaxe gertatu zen, adibidez, Lizarra-Garazirekin, eta ondorengo beste une esanguratsu batzutan ere.

### **Lan mundua eta esparru soziala ere uniformatu nahia, Hego Euskal Herrian paktismoaren babesarekin**

15. Gaurko kontuetara itzulita, EAEko Jaurlaritzak egin duen hilabete gutxi hauetako ibilbidea jakingarria da uniformatzeko borondate horri buruz, baita lan munduan eta esparru sozialean ere. Zenbait adibide aipatu nahi dugu: elkarrizketa soziala izenekoa, krisi ekonomikoaren kudeaketa, enplegu-politika aktiboak eskuratzea eta Osalanen gertatutakoa. Eta horiekin batera, duela gutxi iragarri den negoziazio kolektiboaren erreforma.

16. EAEko “elkarrizketa sozial” delakoa abiatuta, helburuetako bat lan-harremanen mapa estatu guztian berdintzea da. Espainiar sindikalismoak eta ugazabek eta gobernuek finkatu nahi duten paktismo horren baitan inongo eragozpenik gabe sinatzen dituzte akordioak minoria sindikalarik –printzipio demokratikorik oinarritukoena hautsita–, eta autonomia-estatutuko eskumenen esparrua hustu ezezik antzaldatu egiten da, hankaz gora jarri (enplegu-politikak, lan-osasuna, prestakuntza...). Honi buruz Enplegu sailburuaren adierazpenak ezin argiagoak dira: “ geratzen denak gutxiengo gehiengo formal -dio 'elkarrizketa soziala'ri buruz- bihurtuko du, dagokion tokia ez duelako betetzen”<sup>6</sup>. Hau esan duenak alde aurretik dauka erabakita akordioak edozein ordezkariarekin irits daitezkeela.

17. Ez ote dute azkenean sindikatu nagusia edo sindikalismo abertzale guztia baztertuko, Nafarroan bezala, eredu horrekin bat ez datorrelako. Gogoratu beharra dago foru-erkidegoan baztertearen arrazoi bat abertzale izatea dela, baina areago bat ere edukirik ez duen itun eredu ez onartzea, non kudeatzeko esparru batzuk mugimendu sindikalaren esku uzten diren, berau menpean jarri eta finantzazio publikoarekin kateatuta edukitzeko.

18. Nabarmentzekoa da ere egoera honetan sindikalismo espainolak estatuaren ikuskerarik zentralistenaren ezarpenean aitzindari izateko konpromisoa hartzen duela, gizarte- eta lan-esparruko uniformatze prozesuan eragile nagusi bilakaturik. Ez da meritu makala konfederazio abertzaleen aldean “politikarik ez egitea” aldarrikatzen duten horientzat.

19. Ohartarazi beharrean gara gobernuek nola egiten dieten uko lan- eta gizarte- esparruan berezkoen zituzten betebeharrak: langabetuen eta langileen prestakuntza, enpleguari buruzko informazioa eta bitartekaritza, tituluaren aitortzea eta sustapena, gaitasun-ziurtagiriak... patronal eta sindikatuen esku gero eta eskumen gehiago uzten dutelarik. Joera hau erakunde horiek finantzatzeko bide maltzur bat da, eta EAEn demokraziaren aurka gauzatzen da, gehiengoak baztertuta, aldizkari ofizialaren indarrak, eta sarri maila

goreneko auzitegietan helegitea aurkeztea alferreko ahalegina gertatzen delarik. ELAK behin betiko erabaki du amarruz betetako joku honetan ez duela parte hartuko.

20. Krisi ekonomikoaren inguruan, salatu egin dugu EAeko egungo gobernuak bere buruari aurrekontuetan ezarri dion muga, beraz Espainiako Zerga- eta Finantza-Politikarako Kontseiluaren akordio bati men egitearen ondorio delako; kontseilu hori gobernu espainolak eta autonomia-erkidegoek osatzen dute, eta euren erabakiz autonomiek gehienez aurrekontuetan %2,5eko defizita izango dute. Autogobernuari uko egite honek ziurrenik gizarte-gastu murriztagoa eta enpleguaren jaitsiera ekarriko du. Bien bitartean, krisiaren aurkako sasi-planak aurkezten dituzte -puntutik 'garrantzitsuenak' ez dira zehazten-, gizarte-babesean edota eskubide sozialetan ez da inongo hobekuntzarik erabakitzen, eta diruz oso baliabide eskasak dituzte. Zertarako zukutu dituzte bada aurreko urteetako aurrekontuak, superabita lortzeraino? Orain zorraren bidea baztertzeko? Gogora dezagun superabit horien aitzakiaz jaitsi zituztela errenta altuenen, enpresarien eta kapitalaren zergak.

21. EAeko eta Nafarroako zerga-presioa estatuko batez besteko maila baino apalagoa da (3 puntutik gora) eta EBkoa baino askoz txikiagoa (6 puntuko alde). Zorpetzeko aukerari muzin egitea, zerga-politika progresiboagoa ezarri eta enpresarien zein kapitalaren errenten gaineko zergak gehitzeari uko egitea atzeraldiaren alde egitea da. ELAK, noski, ez du Kontzertuak eta Hitzarmen Ekonomikoak ematen digun arautzeko ahalmena auzitan jarriko. Baina ahalmen hori blindatzearen inguruan eztabaida bizia egiten ari delarik, ezinbestekoa da aipatzea bi tresna horiek enpresarien eta kapitalaren errentek zergarik ordain ez dezaten erabili dituztela, hartara Hego Euskal Herria paradisu fiskal bihurtuz.

22. Egoera honetan etsigarria da gobernatzeko aukera dutenek oposizio politikorik ez egitea. Zerga, aurrekontu eta gizarte-politikari dagokienez, benetako isilpeko itun bat dago indarrean, PP, PSE eta EAJren artean EAEn eta UPN-PSNren artean, Nafarroan. Itun instituzionala orokorra eta sistematikoa da, une batean alde bozkatu edo bestean abstentzioa erabakitzen badute ere. Zerga-politikaren eta aurrekontuaren joera neoliberalak bere atal guztietan- etengabe blindatuta geratzen da horrela instituzio guztietan, gobernuan dagoen alderdia dagoela ere. Hots, maiatzeko greba orokorrean nabarmendu genuenez, alderdiak txandakatzen dira, baina politikak ez dira aldatzen.

23. Enplegu-politika aktiboak EAera ekartzea gobernu-propaganda ahalegin handi batek lagundu du. ELAK salatu egin du, lehenik, gai honetan dagoen iluntasuna eta informaziorik eza. Aipatu dugu, halaber, eskumen hori jasota ere EAek ez duela erabakitzeko gaitasunik izango, Madrilen ezarritakoa aplikatzea besterik ez baitu egingo, gainontzeko autonomia-erkidegoen moduan. Horrenbestez, Espainia EBko langabezia-tasarik handiena izatera eramaten duten politikak aplikatzea. Bestalde, kotizazio sozialekin zerikusia duten enplegu-politika aktiboetako baliabide ekonomikoak kudeatzeko aukera ere baztertu egiten du

Jaurlaritzak. ELAren ustez erabaki hau oso larria da eta ondorio politiko gogorak ditu, ez baita alferrik Estatutuaren kontrakoa.

24. Jaurlaritza honen zentralizatu eta uniformatzeko borondatea lan-osasunean ere hasi da sumatzen. Joan den uztailaren 8an Osalanen eta Eraikuntzako Fundazio Laboralaren artean sinatu zen lankidetzeta-hitzarmena inboluzio politiko itzela da. Akordio horrekin Osalanen eraikuntzako ikasgela iraunkorra Espainiako fundazio pribatu haren menpeko tresna bihurtu da.

25. Honela ikasgela iraunkorra edukiz hustu egiten dute, estatuko fundazioak erabakiko baititu Eraikuntzako Txartel Profesionala lortzeko prestakuntzaren edukia eta irizpideak. Txartel hau ezinbestekoa da 2012tik aurrera sektorean lan egiteko, estatuko lege baten (azpikontratazio legea) eta eraikuntzako estatu-hitzarmenaren arabera.

26. Horrela, Eusko Jaurlaritza Fundazioaren interes pribatuetara makurtu da, eta ez du inolako eskumen-gatazkarik planteatu, ezta bere prestakuntza sistema indartzeko ahaleginik egin (Osalanen ikasgela iraunkorraren bitartez). Gainera, Osalanek erakunde pribatu bat diruz lagunduko du EAE guztian jardun ahal dadin. Gipuzkoan honek negoziazio kolektiboari egindako eraso gogorra esan nahi du, hitzarmen probintzialak (ELAk gehiengo absolutua du) ez baitu estatuko fundazioa aintzatesten.

27. Orainsu jakin dugunez, Espainiako sindikatuak eta patronala estatu mailako negoziazio kolektiboan sakoneko aldaketa egiteko asmotan dabilta. Honetaz oraingoz gehiago jakiterik ez dagoen arren, beldur gara ez ote dituzten berebiziko garrantzia duten gaiak aldatu nahi, besteak beste, hitzarmen kolektiboen hierarkia eta esparruak, edota ultraaktibitatea desagerraraztea (patronalak betidanik lortu nahi izan duen helburua). Negoziazio kolektiboaren aldaketa honekin, lehenagotik ere aidean dagoen Damoklesen ezpata, bertikalismo berri bat eratu nahi dute elkarrizketa sozialaren bidetik; horren baitan gobernu, sindikatu eta patronalaren tertzioek "legitimitate berri" bat ezartzen dute, non aldizkari ofiziala erabiliaz erakunde sindikalen ordezkapen funtzioa, berezkoa eta demokratikoa, bazter geratuko den.

28. Lan munduari bete-betean eragiten dion uniformatze prozesu honi buruz, ELAk berriz adierazi nahi du berak ordezkatzeko duen sindikalismoak eskubide osoa duela euskal langileentzako hainbesteko garrantzia duen gai honi buruz bere posizioa agertu eta eztabaida politikoan sartzeko. Horregatik, lanean jarraituko du gertatzen denari adi egon, salatu eta mobilizatzeko prestutasunez, batetik, eta gizarte- zein lan-esparruarekin zerikusia duen orori buruzko proposamenak eginez, bestetik.

29. Estatu-itunak bultzatzen du, euskal patronalaren eta sindikalismo espainolaren babesarekin, uniformatzeko politika, eta ELAk nabarmendu egin nahi du politika horren ondorioz nagusia: estatu-politikak erabaki du bere helburuak Euskal Herrian lortzeko ez duela inolako eragozpenik izango demokrazian aintzat hartu beharko lirakekeen joko-araurik

funtsezkoenak ere ez errespetatzeko. Eta hala jokaten du, adibidez, arerio politikoak desagerrarazteko, Lehendakaritzara iristeko, lan-harremanak uniformatzeko edota klientela-sistema bat eratzeko (beronen helburua politika neoliberalak laguntzen dituen sindikalismoa mantentzea delarik). Duela egun gutxi Lehendakariak iragarri du behar diren aldaketa normatiboak egingo dituztela euskal gehiengo sindikalari Ekonomia- eta Gizarte-Arazoetarako Batzordean zor zaion aitortza kentzeko, hots, edozein sistema demokratikok langile-klaseak erabakitako gehiengoei aitortzen diena; hauxe da EAEko gobernu berriarengandik espero daitekeenaren azken alea. Azkenik, babesa lortu nahian gutxiengoarekin egiten den paktismo soziala EAEn ere jarri dute martxan, Nafarroan bezalaxe; gehiengo demokratikoen arabera, ordea, horrelakorik egitea ezinezkoa litzateke.

### **Eskubide eta askatasunak, gero eta mugatuago**

30. “Borroka antiterrorista” izeneko hori mozorro edo aitzakia gisa erabiltzen da gure inguruan parekorik ez duen moduan oinarrizko askatasun eta eskubideak murrizteko. Egia da ETaren ekintza armatuak erabili egiten direla jende askoren eskubideak murriztu eta oinarri politiko batzuk finkatzeko. Ekintza armatuak argi arbuiatuagatik ere, estrategia errepresibo hori ez da zertan zuritu.

31. Egunkaria kasuari buruz auzitegiek hartu duten erabakiz, azkenik hainbat pertsona epaitu egingo dituzte; presoek sakabanatze politikari eusten diote, beren oinarrizko eskubideak urratzen dituzte (hezkuntza, osasuna...), eta espetxe-onurak ukatu egiten zaizkie; manifestazio eskubidea gauzatzeko jartzen diren oztopo eta debekuak... Lehia errepresiboa begibistan geratzen da. Botere judiziala estatu-arrazoiaren arabera ari da bereziki; arrazoi horren izenean garantismoa ahuldu egin dute.

32. Gertatzen diren urraketa guztiak jasotzeko asmorik gabe, ELAko Nazio Batzordeak zenbait auzi aipatu nahi ditu, zorigaiztoz bizi-bizi daudelako:

33. Lehenik, Herrizaingo sailak presoek argazkiak kaleetatik kentzeko hartu duen erabakia. Bortizkeriaren zilegitasuna ukatzea eta biktimenganako errespetua aitzakiatzat hartuta, erabaki honekin iritzi publikoari ezkutatu egin nahi zaio erretratu horiek kalean zergatik dauden, hots, kolektibo honen eskubideak etengabe nola urratzen diren. Ezin da ontzat eman Rodolfo Ares Herrizaingo sailburuak Ertzaintza auzi honetan nola erabiltzen duen, ez eta gaiok Auzitegi Nazionalera igortzeko erabakia ere –“delitu terroristei buruz erabakitzen duelako”–, EAEko goi-uzitegiak argazkiak erakustea galarazi ez zuenean. ELAk salatu egin du, halaber, Aresen berak iragarri duen espediente zabaldu izana, Etxeraten jarduna bertan behera uztera eraman dezakeena.

34. Bigarrenik, Espainiako Barne-ministroak iragarri zuen erabaki politikoa: bere burua ezker abertzale izendatzen duen sektoreko inongo sigla politikorik ez omen du legeztatuko,



ETAren jarduna gaitzetsiagatik ere. ELAk ez du onartzen kolektibo indefinituak erakunde armatu baten iraupenaren arduradun egitea. Hau, gainera, irtenbidearen aurka doa, herri honetako pentsamolde guztiak ez baitira politikan onartzen; eta honek izan beharko luke, hain justu, ekintza politikoaren xedea. Bestalde, oso larria da GALen garaitik hona jarraitzen duen ministro bakarrak alderdi politiko baten ilegalizazioa iragartzea, erabaki hori auzitegiek hartu beharrekoa bailitzateke. Espainiako gobernuko agintari batek horrela hitz egiteak argi uzten du estatuan demokraziak zein erro ahulak dituen. Gainera, jarrera hori gobernu sozialistak maiatzaren 2005an Espainiako Parlamentuari ETArekin elkarrizketak hasteko eskatu zion baimenaren kontrakoa da.

35. Hirugarrenik, biolentziaren amaiera ordenatua izan dadin elkarrizketarik ez egotea. Ajuria-eneko Itunak berak ere -berarekin amaitu zen gure gizartean ETArri eta ezker abertzaleari buruzko intransigentzia, manikeismo eta polarizazio garai bat- ez zuen halako jarrera gotorrik islatu. Ez da alferrekoa gogoratzea bake-prozesuetan aditu orok nabarmentzen duela bortizkeria modu ordenatuan amaitu beharra.

36. Laugarrenik, aipatu beharrekoak dira salatutako gertakari batzuk: Jon Anzaren desagerpena edota Alain Berastegi gazte nafarrak, besteak beste, salatu zituen bahiketa eta torturak. Honelako egintzek -militante politikoen artean defentsarik gabe daudelako sentipena hedatu nahi dutenak- gerra zikinaren garaiko unerik ilunenak gogora arazten dituzte. Gobernuen ardura da horiek ikertzea eta gizarteari horren berri ematea.

37. Boskarrenik, zuzenbideak ez du ekitaldiak debekatzeko aukerarik ematen "legez kanpo dauden alderdien argudioak" erabiltzen direlako. Ilegalizazioen dinamika udaletako hautetsi eta alkateengana hedatzeko mehatxua ere bereziki kezkatzeko modukoa da. Halaber, herritar eta hautetsiak kriminalizatzea jai-ekitaldiak medio.

38. ELAren ustez, gainera, erabateko intentzio politikoa dago Auzitegi Nazionalaren azken erabakian: Anoetako ekitaldiagatik Arnaldo Otegi, Joseba Alvarez eta Joseba Permachen aurkako ahozko auzibideari ekitea, ekitaldi hartatik bost urte luze igarota gero. Ezin da ahaztu, bestalde, ekitaldi hori logika jakin batean kokatu zela, ENAMen eta Espainiako Gobernuaren artean gero izan ziren elkarrizketen logikan alegia.

39. Joan den urriaren 13an ezker abertzaleko buru ezagunak atxilotu eta espetxeratzea –euren artean LABeko idazkari nagusi ohia– guretzat mugarri bat da. Ez da sarri gertatzen diren eskubide-urratze horietako bat. Izan ere, gatazkarentzako irtenbideak bilatzeko ahaleginean dabilzan pertsona zibilak atxilotu izanak, hain zuzen jarduera politiko hutsa egozten zaielarik, estatuaren hautu bat erakusten du: arazoak irautea nahi du. Horren aurrean, gehiengo sindikalaren deialdiak jaso duen erantzun izugarria ere mugarri bat izan da, bildu duen pluraltasun politikoagatik eta estatuaren politikarekin gogaituta dagoen gizarte baten adierazpen izan den aldetik.

40. Azkenik, urratutako eskubideen inguruan Nazio Batzordeak bere kezka adierazi nahi du, honelako salaketa eta gertakariak komunikabide publiko zein pribatuetan ia oharkabean pasatzen baitira. Hauen moduko informazioak iritzi publikoari ez emateak herritar askoren sufrimendua ezkututzen du, baina gainera kendu egiten diete gobernuen eta estatuko botere, indar eta instituzioen praktikak aintzat hartu beharreko irizpideei buruz gutxieneko exigentziak egiteko gaitasuna.

### **Instituzioetako nazionalistek talka ez egitea erabaki dute**

41. Aipatu dugu gorago aurreko lehendakariak definitu zuen bide-orria, eta beronen arabera onartu zen kontsulta-legea. ELAk bere iritzia eman zuen, eta haren kontraesan handiak nabarmendu zituen, besteak beste, legealdi oso bat agortzea estatuaren ezezkoa egiaztatzeko, bera aski ezaguna izanik, edota ez zela autogobernuaren defentsa irmoago batez lagundu. Azkenik, etsigarria izan zen Konstituzio Auzitegiaren erantzuna jakinekoa izanagatik ordezkotzako planik prestatu ez izana, eta are gehiago auzia “Europara eramateko” baliabide erretorikoa.

42. Abertzale instituzionalen kokapen politikoa ulertzeko argigarria izan zen ere EBBak 2009ko martxoan, hauteskundeak igarota, egin zuen eskaintza. Agiri horretan ezikusiarrena egiten zaio PSEk ezarri nahi duen estatu-arrazoiari eta, besteak beste, “euskal gizartearen aniztasun politikoa” aitortzen du, “Eusko Legebiltzarrean ordezkapena lortu duten aukera politikoetan islatzen dena”.

43. Etengabe egiten diren eskaintzak ikusirik, argigarria da abertzale instituzional hauek beti jartzen dutela kudeaketa politikoko aukerak lortzeko helburua epe luzerako politiken gaineratik. Autogobernuarekin zinez zer gertatzen ari den ez dute juzkatu nahi -herri honetako beste edozein eragile politikok baino hobeto jakin arren-, eta bakarrik kasu batean erantzuten dute: indarrean dagoen esparruari egindako erasoek kontzertu ekonomikoari eragiten badiote, ziurrenik botere ekonomikoekin duen sakoneko aliantzaren ondorioz. Hots, abertzale instituzionalek ondo asko ezagutzen duten errealitateari buruz irits daitekeen konklusio bakarra saihestea erabaki dute: PPK eta PSOEek ez dute gaurko autogobernu esparrua bera ere errespetatzeko asmorik. Ekonomia- eta enpresa-munduko eliteekin estrategikoki elkar hartzeaz gainera, abertzale instituzionalek bertan behera utzi dute autogobernuaren defentsa, hain zuzen euskal sindikalismoarekin eta honek ordezkatzeko dituen langileen interesekin lotuta dauden gaietan (enplegua, prestakuntza, lan-osasuna...). Horrela oso argi geratzen da familia politiko hau non kokatzen den.

44. Horregatik, esparru politikoa gainditzeko aldarrikapenak alde batera utzita, benetan abertzale instituzionalen ikurra estatu-logikarekin inongo talka dinamikarik ez eramateko borondatea da. EBBak joan den abuztuaren 30ean argitaratu zuen oharra dugu lehia horretarako borondate ezaren adierazpide argia: oharrean dioenez, “oraindik euskal

herritarren esku ez dauden eskumenak geureganatzea posible egingo duen estatutu-esparrua garatzea” da helburua. EAJk badaki gutxieneko eskaintza horrek ere ibilbide politikorik ez duela.

45. Eusko Legebiltzarrean EITBko administrazio-kontseilua izendatzerakoan gertatu denak frogatzen du PSE, PP eta EAJ artean ez dagoela benetako borroka politikorik. Akordio hori ulertzeko modu bakarra dago: Indar horien posizio politikotik abiatuta, ordezkapena beren proiektu politiko, sozial eta ekonomikoarekin bat datozenei bakarrik ematea erabaki dute. Legebiltzarrak erabaki arbitrario eta sektarioa hartu du; gehiengo sindikalaren irizpidearen ordezkaria ezarri du, eta gai honetan dagokion egiteko instituzionaletik aldendu egin da, Legebiltzarraren beraren 8/1998 legeak dioenetik, alegia.

46. ELAko Nazio Batzordeak ohartarazi nahi du euskal ugazaba eta enpresaburuek, -boterean egon den nazionalismoak 30 urtez egin duen kudeaketaren onuradun nagusiek, alegia- zenbateko naturaltasunez ikusten dituzten erakunde autonomikoetan gertatzen diren aldaketa politikoak. Ez zitekeen besterik espero. Patronalak berme osoa dauka gaur gobernatzeko aukera duten alderdi guztiekin. Areago, indar horien arteko lehia bakarra ugazaben interesen zaindaririk irmoena zein den erakustea da.

47. Honi buruz, bestalde, ohartarazi nahi dugu aldundien esparruko ekimenetan maila berri bat ezarri dela Gipuzkoa aurrerarekin: ez da ohiko lobby bat, bera osatzen dutenak bai baitziren lehenago ere. Orain, aldun nagusiak bultzata, Gipuzkoako botereak (finantzak, merkataritza, patronalak eta kooperatibak, politika...) antimugimendu sozial moduan eratu dira, sor daitekeen herritarren oposizio antolatuari aurre egiteko, bai azpiegitura handietan (Pasaiako portua kasu), bai zerbitzu sozialen pribatizazioa eta langileen esplotazioa salatzen duenean, batik bat hirugarren adineko jendearentzako zerbitzuetan. Garai berean, Gipuzkoa Sarean ekimen berriarekin kabinete beretik bedeinkatu egin nahi dituzte hedabideetan eta gizartean enpresaburu-klaseari dagozkion balioak.

### **ENAMek apustu politiko hutsa egin behar du**

48. ELA oso kezkatuta dago Batasuna legez kanpo uztea onetsi duen Europako Giza-Eskubideen Auzitegiko epaiarekin. Gorago esan dugunez, erabaki hau justiziaren adierazpiderik kontserbadoreena eta garantismoaren aurkakoena da; 9/11ren ostean nagusitu zen ideologia antiterroristak ekarri ditu horrelakoak.

49. Haatik, ENAMen ekintza politikoa beste zerbaitek baldintzatzen du gehiago: estatuarekiko negoziazio batean armen auzia eta irtenbide politikoa batera konpontzeko asmoak. Borroka armatuaren amaiera elkarrizketa politiko baten baitan etor baliteke ere, ENAMek lehenbailehen hartu behar ditu erabaki estrategikoak, baldin eta aipatzen dituen aliantza estrategikoak eta –estatuaren jokabidea ikusita– parte hartze politiko normalizatua

izaterik nahi badu. Prozesu honetarako bermeak ezin zaizkio –iraganean helburua izan den moduan– beste inori leporatu.

50. Subiraniarako bidea gizarte zibil antolatuak bakar-bakarrik egitea gure aukera bakarra ez ezik lanerako hipotesirik egokiena ere bada. Estrategia armatua amaitzeak eskenatoki berriak ekarriko lituzke, zeinek ekimena eta denboraren kontrola herriaren subiraniaren alde daudenen emango lieketen, eta ez estatuari.

51. Ziurrenik ez da hori baldintza bakarra, baina bai ezinbestekoa, eta gainera militante abertzale gehienek sentitzen dutena. Urratsak egin behar dira subiraniaren aldeko indar guztiek -bakoitzak bere azterketa eta autonomiarekin- hipotesi horrekin lan egin dezaten, jakinik estatuak ez duela aukera hori erraztuko. Gainera, gure ustez ENAMeko erakundeek zeharo aldatu behar dituzte bere mugimenduko parte ez diren erakundeekiko erabili izan dituzten jokabide- eta harreman-kodeak.

52. ETAREN erabakia, porrot egin zuten elkarrizketen ostean armei berriro heltzea, hutsegite handia izan zen, eta ezin da onartu azken hiletako eskalada bortitza, berriz ere heriotzak ekarri dituen: ELArentzat “bizikidetzaren ardatz izan behar duten printzipio eta balioen aurkako eraso da, eta antzutu egiten du, hein handian, Euskal Herriaren askatasunaren alde egunero diharduten milaka lagunen ahalegin militante, zibil eta demokratikoa”<sup>7</sup>.

53. Inongo erakunde armatuk ezin du bilakatu gizarte antolatuaren lorpen eta hutsegiteen epaile, eta are gutxiago galaraz diezaioke hari lehia politikoa baldintza ahalik onenetan egiteko aukera. Gainera, ETAK ezin du gehiago estatuaren politika errepresibo eta antidemokratikoaren aitzakia baliatu agortuta dauden estrategiei eusteko, hain zuzen politika errepresibo hori legitimatu eta indartu egiten baitituzte.

54. Zoritxarrez, badirudi soilik ETA ez datorrela bat bide militarra agortuta dagoelako diagnostikoarekin; jarrera horrek zerbait on egitekotan estatu-itunari eta legez kanpo jarritako esparru sozial eta politikoaren aurkako razzinari egiten dio, ez beste ezeri.

55. Blokeo egoera hau gainditu beharra dago, eta horretarako ELAK eutsi egiten dio elkarrizketaren eta negoziazioaren aldeko jarrerari, hain zuzen gaurko euskal politikan indarrean ez dauden balioak.

### **Maiatzeko greba orokorra, errealitatea azaltzeko beste modu bat**

56. Gure herriak une oso larria bizi du krisi ekonomikoaren ondorioz. Egoera honetan ELAK balioa eman nahi dio euskal gehiengo sindikalak joan den maiatzaren 21ean deitutako greba orokorraren esanahiari. Gure sindikatuaren iritziz grebak -ekintza kolektibo gutxik egin dezaketen moduan- politika, ekonomia, gizarte, erakunde eta komunikabideen erretratua egin zuen. Baina grebak ere erakutsi zuen euskal sindikalismoak, batez ere

sindikatu abertzaleek, beren irakurketa egin eta erabakiak hartzeko gauza direla, lehentasuna beren klase-helburuei ematen dietelarik.

57. Greba ia eragile guztien kontra egin zen, eta hauek euren aurkako jarrera azaltzeko ez zuten dudarik egin. Mobilizazioaren argazkiak, berriz, gizartearen zati bat erakusten du, aktibo izan nahi duena eta klase-errebindikazioekiko konpromisoa hartzeko prest dagoena. Horixe da sindikalismo abertzaleak eta ELAk nazio prozesurako egiten duen ekarpenik berezkoena, baita egunerokoan ere.

58. Greban mobilizatu zirenek deialdi jakin bat babestu zuten, etsi nahi ez duten eta laguntzaile izateko prest ez dauden sindikatuen deialdia; zeren laguntzaile izateari egiten diote uko? Politika neoliberalenak eta estatuak lan- eta gizarte-gaietan estatuak daraman aldebakarreko kudeaketarenak. Eta jende asko ausartu zen mobilizazio handi haretan parte hartzera, egoera latza eta beldurra eragiteko modukoa izan arren. Horrenbestez, greba orokorreko dinamikari eustea erabaki dugu, eta kanpaina bat ari gara egiten indarrean diren politika sozialen alternatiba diren neurri konkretu batzuk plazaratzeko. ELAk balio handia ematen dio ekimen honi.

### **Mugimendu abertzalearentzako erronka handiak Iparraldean**

59. Ipar Euskal Herrian hamar urteotan logika militante oso jakinen inguruan egin den bideak gauza bat adierazten du, bere esparrutik haratago erreferentzia izateko aukera handiak dituela. Euskal departamenduaren aldeko manifestazio eta elkarretaratze pluraletatik hasi eta egun plataforma egonkor bat osatu da, gutxieneko aldarrikapen zabalago batzuren inguruan (departamendua, euskararen koofizialtasuna, laborantza ganbara eta euskal unibertsitatea). Gainera, duela gutxi, gero eta urrats ausartagoak egiten dira helburu horietara iristeko: esaterako, nekazaritza ganbararen inguruko ultimatuma –eta ondoren Euskal Herriko Laborantza Ganbararen sorrera–; ipar Euskal Herriaren existentzia instituzionalari buruzko kontsulta bat antolatzeke kanpaina, eta, oraintsu, auzi honen inguruan egin den erronka, 2010ko martxoan kantonamendu mailako erreferendumak antolatzea. Estrategia hauek indartu egin behar dira 2009 urte honen amaiera Iparralderako erabakigarria izango baita, lurralde-kolektibitateen erreforma -Balladur erreforma- edota hizkuntzaren auzia medio.

60. ELAko Nazio Batzordearen aurreko gogoeta politikorako agirian, “Indarrak bildu burujabetza irabazteko” esaten genuen Euskal Herriko Laborantza Ganbara “gizartearen eskari ozen bat zen; Ganbarako kideei, berriz, baliagarri zaie erakundea; lurraldetasun borondatea du; mugimendu abertzale osoaren onespina du; profesionaltasunarekin eta zorrotasunarekin batera militantzia eta herritarren laguntza ere osagai ditu; ideologia eta nazio-sentipena gorabehera elkartzen du jendea...”. Ezaugarriok dira EHLGk jaso duen babesaren zergatiak. Babes anitza, oso jarrera militantea duena. Bertako babes, baina

baita Euskal Herritik kanpoko ere. Hain zuzen, erakunde honi on egin dio estatuak hasitako auziak, eta urtarrilaren 29ko epaiketarik indartuta atera da, eginbidearen asmoa desagertaraztea bazen ere.

61. Gobernu frantsesak politika errepresiboari gogor eusten dio. Horixe adierazten du Laborantza Ganbarak auzitegietako lehen instantzian izan zuen garaipenaren ondoren helegitea aurkezteko erabakiak. Auzibide guztian argi geratu da estatuen errepresioari aurre egiteko ekimen demokratikoak ez direla falta izango. Baina askatasunaren aurkako erasoengatik inguruan jasotzen diren atxikipen, erreakzio eta elkartasun adierazpenak erabat desberdinak dira borroka armatuko testuinguru baten baitan lortzen direnetatik.

### **Konklusio “garaileak” ateratzea**

62. Euskal gizarteak, oro har, eta mugimendu abertzaleak jasaten dituen zailtasun eta mehatxuetatik ondorioak atera behar ditugu. Aipatu nahi genituzke, labur bada ere, egindako diagnostikotik ateratako konklusio batzuk.

63. Lehenik, ELAk nabarmendu egin nahi du esparru politikoa oso argia dela, bai estatuaren inboluzioari buruz -autogobernua, demokrazia, askatasunak-, bai eragile politiko nagusien gaurko eta iraganeko estrategiei buruz. Hain zuzen, aldaketa politikoa benetan lortu nahi duen edozein estrategiak bere erreferentzia transbertsalitate delako horretatik kanpo bilatu behar duela. Izan ere, hitz hori erretorika besterik ez da, gure herria estatuaren tranpaz betetako joko-arauetara makurtzea eskatzen duena, bere sustatzaileek indar subiranisten bat egiteko ahalegin oro zapuzteko edozertarako prest dauden artean. Subiranistek era zibil eta demokratikoan bat egitea da gure aukera bakarra.

64. Batzeko aukera horri dagokionez, bereizi egin behar da esparru politikoak lortzeko lehiatik eta erakundeak gobernatzeko osatzen diren aliantzetatik. Posible izan behar du, modu dialektikoan, indar abertzaleek lankidetzaz-esparruak eta partekatutako minimoetan oinarritutako posizioak topatzea. Horrek aurrera egitea posible egiten du, eta gainera agerian uzten du bat egitearen alde nor dagoen eta nor ez. Hartara, ezin da inola ere baldintza gisa eskatu inor baztertzea.

65. Hirugarrenik, estatuaren posizioa indartzen duten jarduteko kodeak saihestu egin behar dira. Jardun armatuari buruz ari gara, baina ez soilik hortaz. Estatuarentzat abantaila handi bat da bere joera errepresiboari emandako erantzuna aurreikusteko erraza izatea, oso mugatuta baitago estrategia armatua medio. Aitzitik, modu zibil eta demokratikoan bat egitea da estatuari armak kentzeko eta bere jokabide antidemokratikoa agerian uzteko era bakarra.

66. Laugarrenik, ziur gaude prozesu subiranista batek indar eta legitimazio handiagoa eta gizartean oihartzun zabalagoa lortuko duela bere osagaien artean klase xeheentzako

justizia soziala badauka, batik bat kolektiborik zigortuenentzat (gazteak, etorkinak, emakumezkoak...). Hau da, gainera, gure bokazioa.

67. Argi dago, bestalde, zerga-politikan, aurrekontuetan eta gizarte-gastuan adostasunaren politika egiten dutenek ez dutela autogobernuaren aldeko borrokarik egiten, ez bere kalitateari, ez hedaturari buruz. Hain zuzen, ELAk berretsi egiten du lan-harremanen eta gizarte-babesaren euskal esparruarekiko konpromisoa, eta horrexegatik gai honetan beharrezko diren tresna guztiak eta arautzeko ahalmen betea eskatzen du. Bestalde, esparru horren oinarri izan beharko litzateke joko-arauen errespetua, erakunde sindikalek lortutako gehiengoei dagokienean.

68. Azkenik, esan beharra dago ez dela aldaketa politikorik iritsiko gizarte-politikak aldatuko borroka eta mobilizatorik gabe. Horixe da benetako erronka itun sozialean ez urtzea eta autogobernuaren usteltzea dela-eta ez isiltzea erabaki duen sindikalismoarentzat: bere oinarria aktibatzea eta beroni joera ideologiko, mobilizatzaile eta errebindikatibo nabarmena ematea.

## **Gure apustua**

69. Langile-klasearen eskubideak defenditzeko ahalik baldintza onenetan kokatzearren ELAk berriro baiesten du sindikalismo autonomoaren aldeko apustua, politikari eta finantzei dagokienez. Eredu sindikal hau ezinbesteko baldintza bilakatzen da gure nortasun sindikal, klaseko eta abertzaleak iraun dezan.

70. Noski, autonomia horrek ez du berez bermatzen gure aldeko indar-erlazioa izatea negoziazio kolektiboan, politika publikoetan edo nazio prozesuan; baina libre hitz egin, eragin eta mobilizatzeko ezinbesteko oinarria dugu.

71. Oinarria autonomia sindikala izanik, ELAk nazio eraikuntzan egiten duen ekarpenik bereziena ordezkatzan dituen klase-intereseekin dago lotuta; klase-interes horiek ez ditu inongo egoeratan bigarren mailara pasako.

72. Estrategikoki bete-betean asmatzea izan zen finantzazio publiko "eskuzabala"ren edo enpresaburuen mesedeen zamarik ez bizkarreratzea. Gure oinarri militantea zabaltzea eta herri-klaseen artean afiliazioa eta gure aldarrikapenekiko konpromiso gero eta handiagoa erakartzea dugu aurrean daukagun erronka nagusia.

## **Oharrak**

<sup>1</sup> Aurreko hausnarketa agiriaren izena “Indarrak bildu burujabetza irabazteko” izan zen, eta Lizarra-Garaziko Adierazpenaren X urtemuga zela-eta argitaratu zuen ELAk. 2008ko urria.

<sup>2</sup> Ik. XII Kongresu konfederaleko ponentzia. Bilbo, 2008ko azaroaren 26-27.

<sup>3</sup> Jose Antonio Pastorrek Efe agentziari egindako adierazpenak, 2009ko maiatzaren 7an.

<sup>4</sup> “Indarrak bildu burujabetza irabazteko”, 29. puntua.

<sup>5</sup> Idem, 31. puntua.

<sup>6</sup> Berria, 2009ko ekainaren 13a.

<sup>7</sup> “Indarrak bildu burujabetza irabazteko”, 35. puntua